

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Hasierako onespena ematea hiri antolamendurako plan bereziaren "San Jorge" AI-2 jarduketa integratua garatzeko hirigintza hitzarmenari

Alkatearen urriaren 22ko 259/2021 Dekretuaren bidez, hasierako onespena eman zitzaion Aguraingo hiri antolamendurako plan orokorraren HAPBko "San Jorge" AI-2 jarduketa integratua garatzeko hirigintza hitzarmenari, zeina J. E. Uk sustatu zuen Proyectos y Construcciones Legarbe SL enpresaren ordezkarietan.

Iragarkia 2021eko azaroaren 8ko ALHAOn (127 zenbakia) argitara eman eta hogeiei egun balio-dunez jendaurrean egon zen bitartean alegaziorik aurkeztu ez zenez gero, behin betiko onesten da tokiko gobernu batzarraren 2020ko abuztuaren 15eko bilkuran hartutako erabaki bidez.

Administrazio bideari amaiera ematen dion erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahalko da Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegian, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatuta. Bestela, aukerako berraztertze errekurtsua jarri ahalko da erabaki hau hartu duen organo beraren aurrean, hilabete bateko epean. Organoaren berariazko edo ustezko ebazpenaren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahalko da Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegian, bi hilabeteko epean, errekurtsua ezesteko ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatuta, edo sei hilabeteko epean, errekurtsuaren ustezko ezespina gertatu eta hurrengo egunetik zenbatuta.

Agurain, 2021eko abenduaren 15a

Alkatea

ERNESTO SAINZ LANCHARES